



Iritziak

Errusiar inbasioa eta alemaniar umiliazioa



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Urtebete igaro da Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik eta orduan ez genekizkien gauza asko argitu eta susmo batzuk frogatu dira. Adierazgarrienetako bat da Petro Poroxenkok eta Volodimir Zelenskik azaldu dutena, esanez Kievek ez zuela inolako asmorik Minskeko bake akordioak betetzeko. Akordio horiek Ukrainari berrarmatzeko eta indartzeko denbora emateko helburua zutela aitortu dute Angela Merkelek eta François Hollandek ere bai, biak bake protokoloaren sustatzailer nagusiak.

Gerra programaturik zegoen RAND korporazioak (Pentagonoaren zerbitzura dago 1948tik) 2019ko txosten ospetsuan azaldu bezala. NATOk idazkari Jens Stoltenbergek adierazi du 2014tik NATOk aurrekaririk gabeko laguntza militarra eman diola Kievi, bere indar armatuak entrenatuta, ekipatuta eta babestuta. Ardatz anglosaxoiak Ukraina erabili nahi zuen Errusiari gerra egiteko, horregatik, AEBetako defentsa idazkari Austin Lloydek garbi utzi zuen inbasioa hasi eta aste batzuetara egin zituen adierazpenetan: "Errusia ahuldu nahi dugu". Horretarako gerra luzea behar zutenez, anglosaxoiek bake akordioak lortzeko saiakera guztiak oztopatu dituzte. Berriki Israelgo Lehen ministro ohi Naftali Bennett-ek azaldu du errusiar-ukrainiar gerraren hasieran egoniko negoziazioetan bitartekaritza lana egin zuela, eta bi parteez gauzak bide onean

Ardatz anglosaxoiak
aspaldi programatu
zuen gerra, baina
2022ra arte ez zuen
erabat eztanda egin,
Alemaniak eta Errusiak
ez zutelako nahi

jartzeko borondatea zutela, baina AEBek eta Erresuma Batuak sabotatu zituztela elkarriketak. 2022ko apirilean antzera gertatu zen, orduan Turkian Erdoganek buruturiko bitartekaritza lanarekin ia bake akordioa lortu zuten, baina azkeneko momentuan, Ukrainaska Pravda hedabidearen arabera (Zelenski zalea) AEBek eta Erresuma Batuak negoziazioa bertan behera uztera behartu zuten Ukrainako Gobernua.

Ardatz anglosaxoiak aspaldi programatu zuen gerra, baina 2022ra arte ez zuen erabat eztanda egin, Alemaniak eta Errusiak ez zutelako nahi, beraien ekonomiak kaltetu zitzakeelako; horregatik, germaniar-errusiar lankidetzak ekonomikoak jarraitu du, 2018an North Stream II gasbidea eraikitzen hasi zirenean bezala. Halere, 2022ko otsailaren 24an, azkenean Errusiak nazioarteko legedia

hausten duen erabaki kriminala hartu zuen, eta inbasioa hasi zuen. Jazarpena eta bazterketa sufrizten duen ume batek pazientzia galdu eta arma bat hartuta, eskolara tiroka sartzen denean bezala izan da. Sobietar Batasuna erori zenetik Errusiari egin zitzaizkion promesak eta sinatu dituen akordioak bata bestearen atzetik ezerezean geratu dira, eta geroz eta jazarriago sentitu da.

Urtebeteren ostean, militarki Errusiari ez doakio batere ondo. Irabaztea edo galtzea erlatiboa da espektatibekin duelako zerikusia, horregatik, Mosku galtzen ari da, nahiz eta kaltetu nagusia ukrainar herri xehea izan. Dimentsio ekonomikoan, berriz, Errusiaren kontrako Mendebaldearen gerran antzekoa gertatzen da: hasi zutenen espektatibak kontutan hartuta, Errusia irabazten ari da. Halere, Mendebaldeko herrialdeen artean galtzaile nagusiak Europar Batasuna eta bereziki Alemania dira.

Gatazka honetan aberastasun transferentzia handia gauzatzen ari da Mendebaldeko Europatik AEBetara, baina ez da hori soilik, Alemaniak ikusi du bere ustezko aliatuek berak bultzaturiko bake akordioak sabotatu dituztela, eta Errusiatik Alemaniara gasa eramaten duten gasbideen kontra eraso egin diotela; dena alemaniar ekonomiaren kaltetan. Bitartean, Berlin ez da gai ezer esateko bere interes nazionalaren defentsan, itsu, mutu, gor dago umiliazioa pairatzen. ●